

2018ko ekainaren **4tik aurrera**, kategoria bakoitzeko zerrendetan sartzeko modu bakarra hau izango da: Osakidetzako 2016-17ko EPEko “Kontsulta pertsonalizatuak” ataletik, aldez aurretik identifikatuta eta autentifikazioa eginda.

Autentifikazioa egiteko zure pasahitza erabili behar duzu. Pasahitza gogoratzen ez baduzu, kontuan izan ohar hauek:

- ✓ Osakidetzako langilea bazara edo izan bazara, deitu 945006464 telefonora.
- ✓ Osakidetzako langilea izan ez bazara, pasahitza bidaltzeko eskatu, oposizioan izena ematean adierazi zenuen posta elektronikora.

Horretarako, sartu “Kontsulta pertsonalizatuak” atalean, identifikatu zeure burua NAN edo AIZrekin, eta erabili horretarako berariaz eskuragarri dagoen aukera.

Modu horretan pasahitza berreskuratzerik ez baduzu, edo bidali dizutenak ez badizu eskabidera edo informaziora sartzen uzten, bidali NANaren kopia eskaneatu bat posta elektronikoko honetara: cau-ope@osakidetza.eus.

Zerrendetako informazioa kontsultatzeko baimena duten bakarrak, soil-soilik izena eman duten kategorietan, parte hartzeko eskaera eginda daukatenak dira.